


Euskal AEko akutuen ospitaleetako ospitaleratzeak % 5,8 igo ziren 2021ean

Ospitaleratzeak gehitu ziren, baina arnas gaixotasunengatiko ospitaleratzeak % 7,2 jaitsi

Eustaten datuen arabera, 2020an COVID-19aren ondorioz ospitalizazioek behera egin ondoren, Euskal AEko akutuen ospitaleetan % 5,8ko hazkundera izan zen 2021ean, 221.264 ospitaleratzerekin. Ospitaleratzeen % 83,3 ospitale publikoetan izan ziren, eta % 16,7 pribatuetan. COVID-19a ospitaleratzeen % 5,1 izan zen. Gainera, kirurgiako modalitatea, 82.104 gertakari zenbatu zituen, % 25 igo zen 2020. urtearekin alderatuta, eta pandemiaren aurreko balioetatik hurbil geratu zen.


Euskal AEko ospitaleratze kopuruaren hileko bilakaera. 2019-2021



Oinarria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

Zirkulazio-aparatuko eta digestio-aparatuko gaixotasunak izan ziren 2021ean ospitaleratzeko arrazoi nagusiak (biak % 13,1ekin); ondoren, ehunekotan bat etorritz, tumoreak eta traumatismoak eta lesioak (% 9,5) eta aparatu muskuloeskeletikoko gaixotasunak (% 8,2) izan ziren. 2020arekin alderatuta, arnas aparatuko gaixotasunen taldeak % 7,2 egin zuen behera, batez ere gripearen, pneumoniaren eta beste arnas nahasmendu batzuen kasuen kopuruak behera egin zuelako, eta, ondorioz, seigarren lekuan geratu zen (bosgarren postuan zen 2020an, eta hirugarrenean 2019an).

Euskal AEko akutuen ospitaleetan ospitaleratzeak, gaixotasun ugarienen arabera.



Oinarria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

Ospitaleratutako pertsonen profilari dagokionez, % 51 gizonak izan ziren eta % 49 emakumeak; % 49,7k 65 urte eta gehiago zituzten, eta 73 urte izatea zen ohikoena gizonen artean eta 84 emakumeen artean. Lurraldeka, % 50,6 Bizkaian bizi ziren, % 31,8 Gipuzkoan eta % 15,1 Araban; gainerakoak (% 2,5) probintzia mugakideetakoak izan ziren (Burgos, Kantabria eta Nafarroa).

Haurdunaldia, erditzea eta erdiberriaroa kontuan hartu gabe, gizonak eta emakumeak bat etorri ziren ospitalizazio-kausa nagusietan, baina prebalentzia handiagoa izan zuten gizonen artean zirkulazio-aparatuko gaixotasunetan (% 15,2 eta emakumeen % 11) eta digestio-aparatuko gaixotasunetan (% 14,3 eta % 11,8, hurrenez hurren)

Euskal AEko akutuen ospitaleetako ospitaleratzeak, gaixotasun ohikoenen taldeen eta adin-taldean arabera. 2021

	Guztira	%	Aldaketa-tasa (%)2021/2020	Adina (%)				
				0-14	15-44	45-64	65-79	80 eta gehiago
DIAGNOSTIKO-TALDE HANDIAK								
Guztira	221.264	100	5,8	100	100	100	100	100
Zirkulazio-aparatua	29.046	13,1	9,9	0,8	2,4	10,9	16,6	23,6
Liseri-aparatua	28.887	13,1	6,6	10,5	10,8	15,0	13,5	12,7
Neoplasiak	21.118	9,5	6,7	1,0	4,0	12,1	13,9	7,6
Traumatismoak eta lesioak	21.100	9,5	8,3	9,9	9,4	10,4	7,8	10,8
Aparatu muskuloeskeletikoa	18.182	8,2	10,8	2,8	6,3	11,9	9,9	4,3
Arnas aparatua	17.500	7,9	-7,2	21,2	5,5	5,7	7,3	11,0
Aparatu genitourinarioa	15.946	7,2	9,0	3,7	6,3	7,7	8,2	6,8
Haurduntza, erditzea eta erdiberriroa	15.436	7,0	-2,5	0,1	34,3	0,3	-	-
Helburu berezien kodeak (COVID-19)	11.247	5,1	7,3	1,2	3,8	7,2	5,4	4,0

Ehuneko ospitaleratze guztien gainean kalkulatu da

CIE -10 : Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena, 10. bertsioa

Data 2022ko Urriaren 28a

Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-inkesta

Adinaren arabera, beste gaixotasun-talde batzuek hartzen dute protagonismoa; hala, 0-14 urte bitarteko populazioan arnasketakoak izan ziren (bronkiolitis akutua eta amigdalaren eta adenoideen hipertrofia); 15-44 urte bitartean, emakumeen artean erditze-eta haurdunaldi-arretak, eta gizonen artean traumatismoak eta lesioak (lotailu gurutzatuko bihurritua); 45-64 urte bitartekoan artean, digestio-aparatukoak (iztaiko hernia) nabarmendu ziren gizonen artean, eta tumoreak (bularra eta umetokia) emakumeen artean; 65 urte eta gehiagokoan artean, zirkulazio-gaixotasunak nabarmendu ziren (bihotz-gutxiegitasuna).


Batez besteko egonaldia 5,7 egunekoa izan zen

Ospitaleko egonaldien batez besteko iraupena 5,7 egunekoa izan zen (5,8 egun 2020an); luzeenen artean, nahasmendu mentalak (13,2 egun), jaiotza inguruko jatorriko gaixotasunak (10,6 egun) eta COVID-19a (9,5 egun) izan ziren.

Ospitaleratzeen % 5,1 COVIDagatik izan ziren

Akutuen ospitaleetako ospitaleratzeen 11.247tan arrazoi nagusia COVID-19a izan zen, zeina 2021ean ospitaleratzeen % 5,1 izan baitzen. Gainera, ospitaleratze horiek 106.608 egonaldi eragin zituzten, hau da, 9,5 eguneko batez besteko egonaldia (10,1 egun gizonetan eta 8,5 emakumeetan).

COVID-19aren hileko bilakaera ospitalizazioaren arrazoi nagusi gisa Euskal AEn. 2021



Oinarria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

Ospitaleratzeen hileko bilakaeraren arabera, otsaila, apirila-maiatza, abuztua eta abendua dira kasu gehien izan duten hilabeteak.

COVID-19ak eragindako ospitaleratzeen % 59,9 gizonenak izan ziren, eta % 40,1 emakumeenak. Adin-taldeen arabera, kasurik gehienak 45-64 urte bitartekoek izan zituzten (% 37,3), ondoren 65-79 urte bitartekoek (% 30), 80 urte eta gehiagokoek (% 16,8) eta 15-44 urte bitartekoek (% 15). Halaz ere, azken talde horrek protagonismo berezia izan zuen uztailan eta abuztuan, non gainerako adin-tarteak gainditu baitzituen.

Kirurgia anbulatorioko arretak gora egin zuen ia pandemiaren aurreko mailetaraino

Kirurgia anbulatorioaren modalitatean, zeinean ospitaleratzearen egun berean ebazten diren prozesuak artatzen baitira, 82.104 gertakari zenbatu ziren. Zifra hori 2019an erregistratutakoaren antzekoa da (82.490); horietatik, % 57,9 ospitale publikoetakoak izan ziren, eta % 42,1 pribatuetakoak.

Pazientearen patroiar dagokionez, % 52,5 emakumeak izan ziren, eta % 47,5 gizonak, eta gehienak (% 62,2) 45 eta 79 urte bitartekoak. Begietako eta haiekin loturiko gaixotasunen taldean egin zen ebakuntza kirurgiko gehien (% 32,9), bereziki begi-lausoko kirurgian eta, gehienetan, ospitale publikoetan.

Ospitale pribatuetan pisu handiagoa izan zuten aparatu muskulu-eskeletikoarekin lotutako kasuak (belauneko barne-nahasmendua gizonetan eta eskuetako eta oinetako hatzen deformazioak emakumeetan), larruazaleko afekzioekin batera.

Euskal AEko akutuen ospitaleetako kirurgia anbulatorioko pazienteak, sexuaren eta titulartasunaren arabera. 2021

	2021	2020	2019	2021 (%)	Sexua (%)		Titulartasuna (%)	
					Gizon	Emakumea	Publikoa	Pribatua
DIAGNOSTIKO-TALDE HANDIAK								
Guztira	82.104	65.731	82.490	100	100	100	100	100
Begiko eta anexuetako gaixotasunak	27.026	23.256	29.552	32,9	30,2	35,4	48,2	12,0
Aparatu muskulueskeletikoa	9.066	7.300	9.439	11,0	11,2	10,9	6,8	16,9
Liseri-aparatua	7.735	5.761	6.844	9,4	12,5	6,7	9,4	9,4
Neoplasiak	6.683	6.031	6.238	8,1	6,1	10,0	6,6	10,2
Azaleko gaixotasunak	6.417	4.161	6.077	7,8	8,3	7,4	1,4	16,7

Ehuneko ospitaleratze guztien gainean kalkulatu da

CIE -10 : Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena, 10. bertsioa

Data 2022ko Urriaren 28a

Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-inkesta

Ohar metodologikoa:

Estatuko eta nazioarteko konparagarritasunagatik, ospitaleratze-modalitatean egun 1eko edo gehiagoko egonaldia duten gertakariak bakarrik hartzen dira kontuan, hau da, ez dira zenbatzen 0 eguneko egonaldia dutenak. Egonaldiaren iraupena kalkulatzeko da egun-kopurua bezala ospitaleratze-datatik altakora arte, kontuan izan gabe ospitaleratze edo altako orduak.

Informazio gehiagorako:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62